

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA****Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 2/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa. Aldatzea abenduaren 27ko 761/2011 eta abenduaren 11ko 880/2000 Foru Aginduak, 193 eta 345 ereduak onesten dituztenak hurrenez hurren**

Abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua eta abenduaren 11ko 880/2000 Foru Agindua aldatzen dira. Abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduaren bidez, 193 ereduak onetsi zen, hau da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kapital higigarriaren zenbait errendimenduren eta sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorrei dagokien ez-egoiliarren gaineko zergaren zenbait errentaren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren ereduak. Abenduaren 11ko 880/2000 Foru Aginduaren bidez, berriz, 345 ereduak onetsi zen, hau da, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek eta horien bazkide babesleek, pentsio funtsen erakunde kudeatzaileek, pentsio planen sustatzaileek, gizarte aurreikuspeneko ordezkari sistemei heldu dieten enpresek edo erakundeek eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateek urtero aurkeztu beharreko aitortzenaren. Aldaketa hau gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta ahalbidetzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko egiten da, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.

Horrela, Foru Agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 193 eta 345 ereduaren informazio aitortzenari aplikatzeko zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dogozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

**XEDATZEN DUT**

**Lehenengo artikulua.** Aldatzea abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 193 ereduak, bai eta ereduaren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisikoak eta logikoak ere. Eredu horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapeko kapital higikorren etekin batzuen eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkezten da.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduari:

Bat. "ZIGILU ELEKTRONIKOA" eremua ezabatzen da, 488tik 500era bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduak 1. motako erregistro diseinuetan (Aitortzailearen erregistroa); aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuko posizioak eguneratuko dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENEA
300-500	—	ZURIUNEAK

Bi. "BITARTEKARI BATI ORDAINTZEA" eremuaren titulua aldatu da, 76 posizioa duena, Foru Agindua II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POZISIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENEA
76	Alfabetikoa	HARTZAILE BITARTEKARIA "A", "B" edo "D" hartukizunen gakoetarako baino ez. Eremu honetan kasu hauetan soilik jarriko da "X": aitortpena egin duen hartzailea Espainian helbidea, egoitza edo ordezkari izan duen erakundea bada, atxikipena aplikatu beharreko errentak besteren kontura ordaintzen baditu edo etekina edo errenta sortzen duten balore errenten kobrantzaren gordailuzain edo kudeatzailea bada. Aurrean aipaturikoez beste kasuetan ez da ezer jarri behar, hau da, aitortutako hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa edo Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergaduna bada eta zerga hauen zioz eredu honetako atxikipenak edo konturako sarrerak jasan baditu.

Hiru. "ORDAINDU GABE" eremuaren edukia aldatu da, 117 posizioa duena, Foru Agindua II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POZISIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENEA
117	Alfabetikoa	ORDAINDU GABE "A", "B" edo "D" hartukizun gakoetarako baino ez. Eremu honetan "X" jarri behar da ekitaldian zehar hartukizunak sortu eta aitortzaileak titularrak kobratzera aurkeztu ez delako ordaindu ez baditu. Eremu honetan "X" jarri gero, hartzaile (erregistro) beraren gainerako eremuak honela bete behar dira: HARTZAILEAREN IFZ: 999 999 999 ORDEZKARIAREN IFZ: 999 999 999 ABIZENAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENA EDO IZENDAPENA: Ordaintzeke dauden baloreak. HARTZAILE BITARTEKARIA: hutsik. PROBINTZIA (KODEA): hutsik. KODEAREN GAKOA: dagokiona. JAILKITZAILEAREN KODEA: dagokiona. HARTUKIZUNAREN GAKOA: dagokiona. IZAERA: dagokiona. ORDAINKETA: dagokiona. KODE MOTA: dagokiona. BALORE KONTUAREN KODEA/MAILEGU ERAGIKETAREN ZENBAKIA: dagokiona. SORTZAPEN EKITALDIA: hutsik. HARTUKIZUN MOTA: dagokiona. HARTUKIZUN ZENBATEKOAK / MAILEGU-EMAILEAREN ORDAINSARIA: dagokiona. PFEZ-AN SARTZEN EZ DEN ZENBATEKOA: dagokiona. ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA: dagokiona. ATXIKIPEN %: dagokiona. ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK: dagokiona. MAILEGUAREN HASIERA DATA: dagokiona. MAILEGUAREN EPEMUGA: dagokiona. KONPENTSAZIOAK: dagokionak. BERMEAK: dagokionak. Hartzaileari buruzko datuen informazioa ordaintzeke dauden etekinak edo errentak ordaintzen zaizkion ekitaldiko aitortpenean aurkeztu behar da. Hala gertatzen denean, etekinak edo errentak ordaindu diren ekitaldiko aitortpenean, "SORTZAPEN EKITALDIA" eremuan haiek sortu diren ekitaldiko lau zifrak adierazi behar dira, nahiz eta titularrak kobratzera aurkeztu ez eta ordaindu ez.

Lau. "AITORTZAILEAREN IZAERA" eremuaren edukia aldatu da, 208 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
208	Alfabetikoa	AITORTZAILEAREN IZAERA "S" jarriko da aitortzailea kategoria hauetakoren batean ez dagoenean:
		a) Aitortzailea Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza duen erakundea da, atxikipena aplikatu beharreko eredu honetako errentak besteren kontura ordaintzen dituen edo kapital higikorren etekin edo eredu honetako errentak sortzen dituzten balore errenten kobrantzaren gordailuak zaintzen edo kudeatzen dituen.
		b) Aitortzailea kapital higikorren etekin edo eredu honetako errentak sortzen dituzten baloreen jaulkitzailea da, beti ere errenta horiek inoren kontura ordaintzekoak direnean edo baloreak titularrek jaulkita daudenean edo errenten kobrantza aurreko a) letran aipatzen diren entitateek kudeatzen dituztenean.
		c) Aitortzaileak ordaindu egin ditu hamabi hilabetetik gorako likidazio maiztasuna izateagatik 1999koa baino lehenagoko ekitaldietan konturako sarrerak eragin dituzten kapital higikorren etekin edo errentak, eta urteko laburpenaren ekitaldian behin betiko atxikipenak eta abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Arautegiaren bigarren xedapen iragankorreko 2. idatz zatian aipatutako erregularizazioa egin ditu.
		d) Aitortzaileak jaso egin ditu administrazio gastuei eta balore negoziagarriei dagozkien zenbatekoak; beraz, eredu honetan jasotako gastuen zerrendako eranskina bete behar du.
		Aitortzailea aipatu berri diren kategorietakoren batean egonez gero, eremu hau zuriunez beteko da.
		Eremu honetan "S" jartzen bada, ondoren adieraziko diren eremuak honela beteko dira:
		HARTZAILE BITARTEKARIA (76. kokalekua): zuriunez adieraziko da. KODEAREN GAKOA (79. kokalekua): zeroz adieraziko da. JULKITZAILEAREN KODEA (80-91 kokalekua): zuriunez adieraziko da. ORDAINKETA (95. kokalekua): zeroz adieraziko da. KODE MOTA (96 kokalekua): zuriunez adieraziko da. BALORE KONTUAREN KODEA / MAILEGUAREN ERAGIKETA ZK. (97-116 kokalekuak): zuriunez adieraziko dira. PENALIZAZIOAK (182-192 kokalekuak): zeroz adieraziko dira GASTUEN ZENBATEKOA (195-207 kokalekuak): zeroz adieraziko dira. MAILEGUAREN HASIERA EGUNA (209-216 kokalekuak): zeroz adieraziko da. MAILEGUAREN EPEMUGA (217-224 kokalekuak): zeroz adieraziko dira. KONPENTSAZIOAK (225-236 kokalekuak): zeroz adieraziko dira. BERMEAK (237-248 kokalekuak): zeroz adieraziko dira.

Bost. Titulurik gabeko eremu berria gehitu da, 314 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
314	Numerikoa	Posizio baten zenbakizko edukiaren eremua. Zeroz bete behar da.

Sei. "ORDENA ZENBAKIA" eremu berria gehitu da, 315tik 321era posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
315-321	Numerikoa	ORDENA ZENBAKIA Hartzaile erregistro bakoitza identifikatzen du. Hartzaile erregistro bakoitzari ordena zenbaki bat esleituko zaio modu sekuentzian.

Zazpi. "AURREKO ORDAINTZAILEAREN IFZ" eremu berria gehitu da, 322tik 330era posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
322-330	Alfanumerikoa	AURREKO ORDAINTZAILEAREN IFZ "A", "B" edo "D" hartukizun gakoetarako baino ez. Ordainketa kateko aurreko ordaintzailearen IFZ adierazi beharko da, baldin eta "ORDAINKETA" eremuak (95. posizioa), 2 balioa badu (Espainiar balioen bitartekari bezala), 3 badu (Atzerritar balioen bitartekari bezala), 4 (Atzerriko balio ez-atxikitzaileen bitartekari gisa), edo 5 balioa badu ("B" hartukizun gakoarekin eta "06" izaerarekin jarritako kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako bestelako etekinen edo errenten bitartekari gisa), salbu eta aurreko ordaintzailea atzerrian kokatuta dagoen eta Espainiako IFZ ez duen erakunde bat denean.

Zortzi. "SORTZAPEN DATA" eremu berria gehitu da, 331tik 338ra posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
331-338	Numerikoa	SORTZAPEN DATA "A" hartukizun gakorako baino ez. Errenta zein egunetan sortu den adierazi behar da, bereziki dibidenduak banatzeko akordioan ezarritako ordainketa data. Honela banatzen da:
		331-332 EGUNA: numerikoa, bi posizio
		333-334 HILA: numerikoa, bi posizio.
		335-338 URTEA: numerikoa, lau posizio.

Bederatzi. "MERKATU GAKOA" eremu berria gehitu da, 339 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da; aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuko posizioak eguneratuko dira:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
339	Alfabetikoa	MERKATU GAKOA "A", "B" edo "D" hartukizun gakoetarako baino ez. Dagokion gako alfabetikoa jasoko da, kapital higigarriaren etekinen edo atxikipenari eta konturako sarrerari lotutako errenten jatorri diren baloreak edo akzioak negoziatzen diren merkatuaren arabera, honako gako hauen zerrendaren arabera: "A". Espainiako baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala. "B". EBko atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala. "C". Bestelako atzerriko merkatu ofizialak. "D". Beste batzuk.
340-500	—	ZURIUNEAK

**Bigarren artikulua.** Aldatzea 2000ko abenduaren 11ko 880 Foru Agindua aldatu da, zeinaren bidez, 345 aitorten ereduak onartzen da, borondatezko gizarte aurreikuspenarako erakundeek eta erakunde horietako bazkide babesleek, pentsio funtsen erakunde kudeatzaileek, pentsio planen sustatzaileek, gizarte aurreikuspenarako ordezkio sistemai heldu dieten enpresek edo erakundeek eta gizarte aurreikuspenarako mutualitateek urtero aurkeztu behar duten aitorten-eredua, hain zuzen, eta barne-orriak ordenadorez zuzenean irakurtzeko euskarriez ordezkatzeko bete behar diren baldintzak eta diseinu fisikoak eta logikoak.

Aldaketa hauek egiten zaizkio 2000ko abenduaren 11ko 880 Foru Aginduari:

Bat. "ZIGILU ELEKTRONIKOA" eremua ezabatzen da, 488tik 500era bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 345 ereduiko 1. motako erregistro diseinuetan (Deklaratzailearen erregistroa); aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuko posizioak eguneratuko dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
210-500	—	ZURIUNEAK

Bi. "GAKOA" eremuaren edukia aldatu da, 82 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 345 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Aitortuen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
82	Alfabetikoa	<p>GAKOA Gako zerrenda honetan dagokion gako alfabetikoa jarri behar da:</p> <p>BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEAK/ PENSIO FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEAK:</p> <p>A) Bazkide arrunten eta partaideen ekarpenak. Gako hori borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako (BGAE) bazkideen eta partaideen pentsio planei egindako ekarpen pertsonalak idatzeko erabiliko da, edozein dela ere BGAE eta pentsio plan mota. Era berean, gako hori erabiliko da jakinarazteko partaideek zer ekarpen egiten duten enpresak oro har ekarpenak egiten dituen enpleguko pentsio plan berera. Era berean, gako hori erabiliko da Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 67. artikulua 1. apartatuaren a) eta c) letretan jasotako norberaren konturako langileen edo langile autonomoen enpleguko pentsio plan sektorial eta sinplifikatuetarako ekarpenak adierazteko. Horretarako, eremu horretarako adierazten diren azpigakoak erabiliko dira.</p> <p>B) Bazkide babesleen edo sustatzaileen kontribuzioak. Gako honekin identifikatu behar dira bazkide babesleek eta sustatzaileek enplegu sistema edo modalitateetan egin eta bazkide arruntei eta partaideei zerga ondoretarako egotzi zaizkien kontribuzioak, baita enpresa kontribuzioak ere, zerga ondoretarako egotzi ezin zaizkien eta salbuespenez eginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 5.3.c) artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat etorritik. Honen barruan sartzen dira, halaber, sustatzaileek berrondatezko planak burutzeko egindako enpresa kontribuzioak, aipatutako Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 4 eta 6. xedapen iragankorriari heltzen direnak, baita sustatzaileek berrondatezko planak burutzeko egindako ekarpenak ere, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko 8/1987 Legeko lehen xedapen iragankorriari heltzen direnak.</p> <p>Gakoaren arabera ("A" edo "B"), erregistro bereizietan jaso behar dira % 65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala edo % 33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa duten pertsonak, eta, Kode Zibilararen 1. liburu XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, ordezkaritza ahalmena duen kuradoretzaren mende dauden pertsonak ordaindutako kopuruak. Gogoan izan kasu horietan nahitaez adierazi behar dela onuradunaren IFZ. Ekarlea desgaitua bera izan daiteke, edo ahaideren bat, zuzeneko zein laugarren graduainoko albo lerrokoa, edo ezkontidea, edo tutorea nahiz harrera egilea, edo sustatzailearen bat. Ekarlea ez sustatzailea ez ezindua bera ez bada, onuradunaren IFZ ez ezik "A" gakoak ere jarri behar da.</p> <p>BGAE-EN BAZKIDE BABESLEAK/PENSIO PLANEN SUSTATZAILEAK</p> <p>C) Bazkide babeslearen edo sustatzailearen ekarpen kengarriak. Gako hau erabiliko da BGAEetako bazkide babesleen eta enplegu sistemako pentsio planen sustatzaileen ekarpenak adierazteko, baldin eta zerga pertsonaletan kengarriak badira eta bazkide arruntei eta partaideei fiskalki egotzen bazaizkie (langilearen erabaki baten ondorio izan ala ez). Horrez gain, gako hau erabiliko da, halaber, enpresaburu indibidualak edo profesionalak BGAEei eta pentsio planei egiten dizkien ekarpen adierazteko, baldin eta entitate eta plan horien bazkide babesle eta bazkide arrunt zein sustatzaile eta partaide ere bada, eta ekarpen horiek bere zerga pertsonaletan kengarriak badira. Horretarako, kasu bakoitzerako aurreikusitako azpigakoak erabiliko dira.</p> <p>ORDEZKO SISTEMEI HELDU DIETEN ENPRESAK EDO ERAKUNDEAK</p> <p>D) Enpresa edo erakundearen ekarpenak eta zuzkidurak.</p> <p>GIZARTE AURREIKUSPENERAKO MUTUALITATEAK</p> <p>E) Profesionalek edo banakako enpresariak ordaindutako kopuruak, murrizketa eskubidea ematen dutenak. Gako honekin jaso behar dira profesionalek edo banakako enpresariak ordaindutako kopuruak, baita lehenean mailarainoko odolkitetasuneko ahaideek eta aipatutako mutualitateetako langileek ordaindutakoak, hain zuzen ere, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 8.6 artikuluan aurrez ikusten diren arriskuak estaltzeko direnean.</p>

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
82	Alfabetikoa	F) Besteren konturako langileek edo bazkide langileek ordaindutako kopuruak, murrizketa eskubidea ematen dutenak. Gako hau jarrita adierazi behar dira soil-soilik besteren konturako langileek edo bazkide langileek pentsio planetarako gizarte aurreikuspen sistema alternatibo gisa diharduten gizarte aurreikuspeneko mutualitateei ordaindutako kopuruak, hain zuzen ere azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuan 8.6 artikuluan aurrez ikusten diren arriskuak estaltzeko direnean, aipatutako langileentzako langabezia barne.
		G) Sustatzaileak ordaindutako kopuruak. Gako hau jarrita adierazi behar dira sustatzaileak ordaindutako kopuruak, baldin eta langileari zerga ondoretarako lan etekinen kontzeptuan eragozten badira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarria murrizten badute eta Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuko lehen xedapen gehigarrian aurrez ikusitakoarekin bat etorri burutzen badira, aipatutako langileen langabezia barne.
		Gakoaren arabera ("E", "F" edo "G"), erregistro bereizietan jaso behar dira % 65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala edo % 33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa duten pertsonak, eta, Kode Zibilaren 1. liburuko XI. tituluaren xedatutakoaren esparruan, ordezkari zeharkako ahalmena duen kuradoretzaren mende dauden pertsonak ordaindutako kopuruak. Gogoan izan kasu horietan nahitaez adierazi behar dela onuradunaren IFZ. Ekarlea desgaitua bera izan daiteke, edo ahaideren bat, zuzeneko zein laugarren gradurainoko albo lerrokoa, edo ezkontidea, edo tutorea nahiz harrera egilea, edo sustatzailearen bat. Desgaitua modu bakar edo ezetztaezinean izendatu behar izan da onuradun. Ekarlea ez sustatzailea ez desgaitua bera ez bada, ekarpena erregistro berezian zehaztu behar da, eta onuradunaren IFZ ez ezik "E" edo "F" gakoa jarri behar da.
		<b>ASEGURATUTAKO AURREIKUSPEN PLANAK</b>
		H) Aseguratutako aurreikuspen planetarako primak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiari buruzko Foru Arauaren 70.1.5. artikulua jasotzen duen aseguratutako aurreikuspen planetarako ezarri diren primen zenbatekoa jarriko da. Erregistro independenteetan jaso beharko dira honako hauen alde eratzten diren aurreikuspen plan aseguratuei ordaindutako primak: % 65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala edo % 33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa duten pertsonak, eta, Kode Zibilaren 1. liburuko XI. tituluaren xedatutakoaren esparruan, ordezkatzeko ahalmena duen kuradoretzaren mende dauden pertsonak. Horrelako kasuetan, nahitaez ezarri behar da onuradunaren IFZ. Prima ordaintzen duena desgaitua bera izan daiteke, edo haren ahaide zuzena, edo laugarren mailarainoko zehar-ahaidea, bai eta ezkontidea ere, edo tutoretza zein harrera erregimenean duen pertsona. Desgaitua onuradun gisa agertu behar du, era garbi eta ezetztaezinean. Prima ordaindu duena desgaitua bera ez den beste pertsona bat bada, prima horren ordainketa erregistro independente baten bidez gauzatu da; horretarako, "H" gakoa ezarri beharko da, bai eta onuradunaren IFZ ere.
		<b>AURREZPEN SISTEMATIKOKO BANAKAKO PLANAK</b>
		I) Aurrezpen sistematikoko banakako planei ordaindutako guztizko primak.
		<b>ENPRESAKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN PLANAK</b>
		J) Enpresako gizarte-aurreikuspeneko planei ordaindutako primak. Erregistro independenteetan jaso beharko dira, azpigakoaren arabera, honako hauen alde eratzten diren enpresako gizarte aurreikuspeneko planei ordaindutako primak: % 65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala edo % 33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa duten pertsonak, eta, Kode Zibilaren 1. liburuko XI. tituluaren xedatutakoaren esparruan, ordezkatzeko ahalmena duen kuradoretzaren mende dauden pertsonak. Kasu horietan, ezinbestekoa da onuradunaren IFZ kontsignatzea. Prima ordaintzen duena desgaitua bera izan daiteke, edo haren ahaide zuzena, edo laugarren mailarainoko zehar-ahaidea, bai eta ezkontidea ere, edo tutoretza zein harrera erregimenean duen pertsona. Desgaitua bera modu bakarrean eta salbuespenik gabe izendatu behar dute onuradun. Prima ordaintzen duena desgaitua bera ez den beste pertsona bat izanez gero, primaren ordainketa aparteko erregistro baten bitartez kontsignatuko da, eta "J" gakoa eta onuradunaren IFZ adierazi beharko dira.
		<b>MENDEKOTASUN-ASEGURUA</b>
K) Hartzzaileek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Aginduko 70.1.7 <sup>a</sup> artikuluan zehaztutako mendekotasun larriko edo mendekotasun handiko arriskua estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak. Erregistro independenteetan jaso beharko dira honako hauen alde eratzten diren aipatutako mendekotasun aseguruiei ordaindutako primak: % 65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala edo % 33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa duten pertsonak, eta, Kode Zibilaren 1. liburuko XI. tituluaren xedatutakoaren esparruan, ordezkatzeko ahalmena duen kuradoretzaren mende dauden pertsonak. Kasu horietan, ezinbestekoa da onuradunaren IFZ kontsignatzea. Prima desgaitua berak ordaindu ahalko du, zuzeneko senideren batek edo laugarren mailaraino zeharkakoren batek, laugarren mailakoak barne, edota desgaitua tutoretza edo harrera erregimenean duten ezkontide edo bestelakoek. Ezgaitua modu bakarrean eta salbuespenik gabe izendatu behar dute onuradun. Prima ordaintzen duena ezgaitua ez den beste pertsona bat izanez gero, primaren ordainketa aparteko erregistro baten bitartez kontsignatuko da, eta "K" kodea eta onuradunaren IFZ adierazi beharko dira.		

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
82	Alfabetikoa	<p>L) Mendekotasuneko aseguru kolektiboei ordaindutako primak. Erregistro independenteetan jaso beharko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 70.1.7 artikulua azken aurreko paragrafoan aipatzen diren mendekotasuneko aseguru kolektiboei ordaindutako primak.</p> <p>Aseguru horiek azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen Pentsio Planak eta Funtsak arautzeko Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian adierazitako baldintzak bete beharko dituzte, eta aseguru-hartzaile gisa enpresa soilik agertuko da, eta aseguraturua eta onuraduna langilea izango da.</p> <p>BANAKAKO PENSIOEN PRODUKTU PANEUROPAREN SUSTATZAILEAK (PEPP)</p> <p>M) Aurreztaileek banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenak (PEPP). Gako honekin lotu behar dira Banakako pentsioen produktu paneuropar bati buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan araututako banakako pentsioen produktu paneuroparren kontuetan eta azpikontuetan aurreztaileek egindako ekarpenak.</p>

Hiru. "AZPIGAKOA" eremuaren edukia aldatu da, 83tik 84ra posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 345 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Aitortuen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
83-84	Numérico	<p>AZPIGAKOA</p> <p>"A", "B", "C", "D", "E", "F", "G", "I", "J" eta "L" gakoak direnean, dagokion zenbaki azpigakoa idatzi behar da, zerrenda honen arabera:</p> <p>"A" gakoari dagozkion ekarpenetan erabili beharreko azpigakoak:</p>
		01 Azpigako hau idatzi beharko da, baldin eta partaideek edozein modalitateko pentsio planetara egindako ekarpenak badira, "02" azpigakoan aipatutakoak izan ezik.
		02 Azpigako hau idatzi beharko da, baldin eta langileen ekarpenak eta enpresak oro har egiten dituen kontribuzioak enplegu sistemako pentsio plan berera egiten direnean.
		03 Azpigako hori jarri beharko da Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 67. artikulua 1. apartatuaren a) eta c) letretan jasotako norberaren konturako langileen edo langile autonomoen enplegu pentsio plan sektorial eta sinplifikatuetarako ekarpenak direnean. Baita norberaren konturako langileek edo autonomoek lehentasunezko enplegu borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek egindako ekarpenak ere.
		10 Azpigako hau kontsignatuko da gizarte aurreikuspen boluntarioko entitateentzako ekarpenei buruz ari garenean.
		"B" gakoari dagozkion ekarpenetan erabili beharreko azpigakoak:
		10 Azpigako hau kontsignatuko da gizarte aurreikuspen boluntarioko entitateentzako kontribuzioei buruz ari garenean.
		"C" gakoari dagozkion ekarpenetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako honetan idatzi beharko da, baldin BGAEko bazkide babesleen edo lan sistemako pentsio planaren sustatzaileen ekarpenak —haien zerga pertsonaletatik kengarri direnak— badira, eta baldin, hurrenez hurren, zergen aldetik bazkide arruntei edo partaideei egotzen bazaizkie.
		02 Azpigako hau erabiliko da enpresaburu indibidualak edo profesionalak BGAEi eta pentsio planei egiten dizkien ekarpen propioak adierazteko, baldin eta entitate eta plan horien bazkide babesle eta bazkide arrunt zein sustatzaile eta partaide ere bada, eta ekarpen horiek bere zerga pertsonaletan kengarriak badira.
03 Azpigako hau jasoko da BGAEra eta enplegu sistemako pentsio planera egindako ekarpenen kasuan, baldin eta ekarpen horiek langilearen erabaki baten ondorio badira eta harentzat gauzako ordainsariak badira.		
04 Azpigako hau jarri behar da enpresa kontribuzioak direnean, partaideei edo onuradunei zerga ondoretarako egotzi ezin zaizkien eta salbuespenez eginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 5.3.c) artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat etorri. <p>Era berean, azpigako hau jarri behar da enpresak lehendik hartutako pentsioen ziozko konpromisoak bideratzeko egindako kontribuzioak direnean, kenkari mugapekoak dituztenak, sustatzaileek berrorekatze planak burutzeko egindakoak, aipatutako Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 4 eta 6. xedapen iragankorrari helduz direnak.</p> <p>Azpigako hau jarri behar da, berebat, kontribuzioak sustatzaileek Pentsio Plan eta Funtsei buruzko 8/1987 Legeko lehen xedapen iragankorrari heldutako berrorekatze planak burutzeko eginak direnean.</p>		

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
83-84	Numérico	"D" gakoari dagozkion ekarpenetan eta zuzkiduretan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako honetan idatziko da baldin sustatzailearen Zerga pertsonalean kengarriak ez diren ordeko sistemetara egindako ekarpenak badira, eta zerga aldetik langileei egotzi ez zaizkienak, 190 erduan kontura egindako jenerotako ordainketatzat jarri gabe.
		02 Azpigako hau jarri behar da enpresak lehendik hartutako pentsioen ziozko konpromisoak bideratzeko egindako aseguru kontratuatarako kontribuzioak direnean, langileei zerga ondoreetarako egotzi ezin zaizkienak eta kenkaririk jaso ezin dezaketanak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritz.
		03 Azpigako hau jarri behar da enpresak lehendik hartutako pentsioen ziozko konpromisoak bideratzeko egindako kontribuzioak direnean, onuradunei zerga ondoreetarako egotzi ezin zaizkienak eta sustatzailearen zerga pertsonalaren kengarriak direnak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren bosgarren xedapen iragankorreko 5 idatz zatien xedatutakoarekin bat etorritz.
		"E" gakoari dagozkion ekarpenetan eta zuzkiduretan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau jarri beharko da enpresaburu indibidualak edo profesionalak gizarte aurreikuspeneko mutualitateari egindako ekarpen propioak direnean, eta, era berean, enpresaburu hori mutualitatearen sustatzailea eta mutualista ere baldin bada.
		02 Azpigako hau jarri beharko da profesionalak edo banakako enpresaburuak ordaindutako zenbatekoak direnean, baldin eta murrizketa jasotzeko eskubidea ematen badute, eta 01 azpigakoan aipatutakoak baldin ez badira.
		"F" gakoari dagozkion ekarpenetan eta zuzkiduretan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau jarri beharko da gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ordaindutako zenbatekoak direnean, baldin eta mutualitate horiek jarduten badute besteren konturako langileei edo bazkide langileei dagozkien pentsio planen gizarte aurreikuspeneko sistema alternatibo gisa, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 8.6 artikuluan aurreikusitako kontingentziak estaltzea xede duen zatian, langile horien langabezia barne, 02 azpigakoan jaso behar ez badira.
		02 Azpigako hau jaso beharko da langileen ekarpenak eta enpresak oro har egindako kontribuzioak gizarte aurreikuspeneko mutualitate berera egiten direnean.
		"G" gakoari dagozkion ekarpenetan eta zuzkiduretan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau jarri beharko da, bazkide babesleak eta sustatzaileak ordaindutako eta langileari zerga bidez lan etekin gisa egotzitako zenbatekoak direnean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian murrizketa izateko eskubidearekin.
		02 Azpigako hau jarriko da bazkide babesleak eta sustatzaileak ordaindutako zenbatekoen kasuan, baldin eta kopuru horiek langilearen erabaki baten ondorio badira eta langile horrentzako gauzako ordainsariak badira.
		"I" gakoari dagozkion ordaindutako primetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau kontsignatuko da hartzaileek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Aginduko laugarren xedapen gehigarrian zehaztutako aurrezpen sistematikoko banakako planei egindako ekarpenen kasuan.
		02 Azpigako hau kontsignatuko da hartzaileek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Aginduko hamabigarren xedapen gehigarrian zehaztutako aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzen diren aseguru-kontratuei egindako ekarpenen kasuan. Gako hori kontsignatuz gero, aseguru-entitateak urtean primetan ordaindutako gehieneko mugaren baldintza, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiko 123.10.d) artikuluan zehaztutakoa, betetzen dela adieraziko du.
		"J" gakoari dagozkion ordaindutako primetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau kontsignatuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Aginduko 70.1.6. artikuluan zehaztutako enpresako gizarte-aurreikuspeneko planen aseguratuek egindako ekarpenen kasuan.
		02 Azpigako hau jarriko da enpresak egindako ekarpenak direnean, baldin eta ekarpen horiek langilearen erabaki baten ondorio badira eta langile horrentzako gauzako ordainsariak badira.
		03 Azpigako hau kontsignatuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Aginduko 70.1.6. artikuluan zehaztutako enpresako gizarte-aurreikuspeneko planen hartzaileek egindako ekarpenen kasuan, fisikoki partaideei egotziko zaizkienean.
		04 Azpigako hau jarri beharko da, baldin eta banakako enpresaburuaren edo profesionalen ekarpen propioak direnean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 70.1.6 artikuluan aipatzen den enpresaren gizarte aurreikuspeneko plan batean, eta, era berean, plan horren hartzailea eta aseguratua ere baldin bada.



POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
83-84	Numérico	"L" gakoari dagozkion ordaindutako primetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau jarri beharko da enpresak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 70.1.7. artikulua azken aurreko paragrafoan aipatzen diren mendekotasun aseguru kolektiboari ordaindutako primen kasuan.
		02 Azpigako hau jarri beharko da enpresaburu indibidualak edo profesionalak mendetasuneko aseguru kolektiboetara egindako ekarpen propioak direnean, eta, era berean, aseguru hartzaile eta asegurduna ere baldin bada.
		03 Azpigako hau jarriko da langile enpresak egindako ekarpenak direnean, baldin eta ekarpen horiek langilearen erabaki baten ondorio badira.
Gogoan izan: Pentsio Planen, Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateen eta Enpresako Gizarte Aurreikuspeneko Planen antzeko prestazio estaldurako sistemetara egindako enpresa ekarpen eta zuzkidurak —zergen aldetik langileei egotzekoak direnak— ez dira 345 eredu honetan sartuko, baizik eta 190 eredu (lan-etekinengatik, zenbait ekonomia jardueren etekinengatik eta sariengatik PFEZaren kontura egindako atxikipenen eta sarreraren urteko laburpenarena).		

Lau. "60.000 EUROTİK BEHERAKO LAN ETEKIN OSOAK" eremuaren edukia aldatu da, 271 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 345 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Aitortuen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
271	Alfabetikoa	60.000 EUROTİK BEHERAKO LAN ETEKIN OSOAK Eremu hau "X" bat idatziz bete behar da, baldin eta langileak ekitaldian 60.000 eurotik gorako lan etekin osoak lortzen ez baditu ekarpena egiten duen enpresatik. Bestela, "N" bat jarriko da. Azipigakoak "A"02, "C"01, "C"03, "F"02, "G"01, "G"02, "J"01, "J"02 edo "J"03 badira soilik eduki ahal izango du edukia eremu honek.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2024. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 9a

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

*Ogasun zuzendaria*  
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA